



Pasaden astean, Altsasuko gazteen aurkako zigorrak ezagutu genituen, eta terrorismo delitua leporatu ez dieten arren, kartzela zigor altuak inposatu diete: Oihan Arnanzi eta Iñaki Abadi 13 urteko kartzela zigorra jarri diete, Jokin Unamunori eta Adur Ramirez de Aldari 12na urtekoa, Jon Ander Cob, Julen Goikoetxea eta Aratz Urrizola gazteei 9na urtekoa, eta Ainara Urkijori, bi urtekoa. Irregularitasunez beteriko epaiketa izan da. Asteartean Guardia Zibilak Iñaki Abad, Oihan Arranz, Jon Ander Cob, Julen Goikoetxea, Jokin Unamuno eta Aratz Urruzola atxilotu dituen eta audientzia nazionalak kartzelara sartu zituen, ihes egiteko arriskua dagoela argudiatuz, momentu oro aurkitzeko moduan egon diren arren. Sententzia, kartzelatzea eta kasua salatzeko asmoz, ehunka pertsona bildu dira Barakaldoko Bide Onera plazan. Altsasukoa poliza-muntaia bat dela argi utzi dute eta gazte guztien askatasuna aldarrikatu dute.